

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2022 ekitaldirako Aurrekontu orokorra eta pertsonal plazen plantilak. Hasierako onarpena. (Espedientea: 2021/217/S200)

Laudio Udalaren Udaltzakiak, 2021eko azaroaren 24 egunean egindako aparteko osoko bilkuran, erabaki zuen onartzea hasiera batean 2022 ekitaldirako aurrekontu orokorra, bertan sartuta daudelarik batetik, udalaren aurrekontua eta udal euskaltegia erakunde autonomoarena eta, bestetik, Aurrekontua Betearazteko Udal Araua; udaletxeko eta udal euskaltegia erakunde autonomoko pertsonal plazen plantila.

Kontutan izanik Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 15 artikuluan erabakita datorren legez, honako iragarki hau argitaratu da hamabost (15) eguneko epean jendaurrean erakusteko. Epe horren barruan legitimitatez interesatuta daudenek aztertu ahal izango dute eta Udaltzakiari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. 2022 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta pertsonal plazen plantilak, dagokion dokumentazioarekin batera, udaletxeko udal kudeaketa arloko ekonomia eta zerga kudeaketako bulegoan, Herriko Plaza, bigarren solairuan, egongo da interesdunen eskura.

a) Erakusketa eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost (15) lanegun iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengotik hasita.

b) Non aurkeztu: Erregistro orokorra.

c) Zein Organori erreklamatu: Udaltzakiari.

Epe horretan zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten, 2022 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta pertsonal plazen plantilak, behin betiko onartutzat joko dira. Erreklamaziorik balego, Udaltzakiak erabakiko ditu hilabeteko epean berariazko erabaki bitartez eta erabakia behin betiko onartuko da.

Laudio, 2021eko azaroaren 25a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE